



AUDIOA, BIDEOA, TXOSTENA eta EGITARAUA zuen eskura hurrengo esteka honetan:
<http://goo.gl/z6nVqg>

Bilbo, 2016-06-15

EUSKADIKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN ERDIAK BAINO GEHIAGOK HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN BAT EGIAZTATU DUTE JADA

- **Eskualdatu gabeko langileen kasuan –epailetza, magistratutza, fiskaltza eta Justizia Administrazioako letratuak–, ehunekoak % 18ra besterik ez da: 546tik 99k.**
- **Justizia Administrazioak dokumentuen % 65,4 ematen ditu jada elebitan, ia 2011n halako bi.**
- **2015ean, 29 demanda aurkeztu ziren euskaraz, 70 epai eman elebitan eta 120 deklarazio eta 296 agerraldi egin ziren euskaraz EAEko epaitegietan.**
- **2016an, Eusko Jaurlaritzak 767.116 euro bideratuko ditu Euskadiko Justizia Administrazioako langileen hizkuntza-normalizaziora.**

Herri Administrazio eta Justiziako sailburu Josu Erkorekak gaur goizean hartu du parte, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuak eta Sabino Arana Fundazioak antolatuta, EAEko zuzenbide zibilaren lege berriari eta euskarak arlo judizialean duen egoerari buruz gogoeta egitea xede duen «*Euskal Herriko Zuzenbide Zibila, Oraina eta Geroa*» lan-jardunaldian.

2016an, Eusko Jaurlaritzak 767.116 euro inbertituko ditu Euskadiko Justizia Administrazioako langileen hizkuntza-normalizazioan. Josu Erkorekak 2011-2020 aldirako Justizia Administrazioako Hizkuntza Normalizaziorako Planaren gaineko 2015eko ebaluazio-txostenaren inguruan hitz egin du. Ebaluazio-txostena bost urtean behin egiten du Eusko Jaurlaritzak, garapen-maila eta helburuen betetze-maila neurtzeko.

Agiriak aitortzen duenez, «euskalduntzeari eta euskararen erabilera sustatzeari beranduago ekin zaio gainerako EAEko herri-administrazioako arloetan baino», «konplexutasun eta ezaugarri bereziko» esparrua delako, besteak beste, arrazoi hauek direla medio: eskumen-banaketa, botere judizialaren antolaketa espezifikoa eta Espainiako gobernuak etengabe auzitara eramatea Justizia Administrazioa euskalduntzeko EAEko araudia.

Hala ere, eta, agiriak berak dioenez, Euskadiko Justizia Administrazioa euskalduntzeko planaren helburuak –eta, ondorioz, lortu nahi diren emaitzak– EAEko herri-administrazioaren beste esparru batzuetakoak baino asmo txikiagokoak diren arren, 2011-2015 aldian aurrerapauso nabarmenak eman dira:

- ✓ **Hizkuntza-gaitasuna (profilak):** Justizia Administrazioako funtzionarioek nabarmen hobetu dute hizkuntza-gaitasuna:
 - Erdiak baino gehiagok hizkuntza-eskakizunen bat dute. Gipuzkoakoa da hizkuntza-eskakizuna dutenen ehuneko handiena.
 - Dagokion kidegoko edo mailaz gorago dagoen bateko profila egiaztatu dute % 35,4k. Alegia, 2011n baino % 9,3 gehiagok.
 - Laguntzaileen kidegoarena da profila egiaztatu dutenen ehuneko handiena (%45).

Eskualdatu gabeko langileen hizkuntza-gaitasunei buruzko datuak ere jaso ditu txostenak, Eusko Jaurlaritzaren eskumenetik kanpo dauden eta, ondorioz, hizkuntza-eskakizunik ezarri ezin diezaiekeen arren: epaileak, magistratuak, fiskalak eta Justizia Administrazioako letratuak. Kidego profesional horien hizkuntza-gaitasuna eskasagoa da:

- Justizia Administrazioan diharduten 546 epaile, magistratu, fiskal eta letratu horietatik 99k (% 18) baizik ez dute hizkuntza-profila.
 - Hizkuntza-profilari dagokionez, ehuneko handiena Justizia Administrazioko letratuena da, % 25,7; epailetzarena da bigarrena, % 16; eta fiskaltzarena gero, % 8.
- ✓ **Agiri elebidunak eta kontsulta terminologikoak:** Justizia Administrazioko Euskara Batzordeak agiri asko aztertzen ditu urtero, itzulpenak ikuskatu eta balekotzat eman eta terminologia osatu eta JustiziaBat, Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa-sistema prozesalerako aplikazioaren esku jartzeko.
- Justizia Administrazioak dokumentuen % 65,4 ematen ditu jada elebitan, ia 2011n halako bi.
 - Justizia Administrazioan erabiltzen diren ereduak % 34 eman daitezke euskaraz; Bake Epaitegietan, ereduak % 100.
 - 2015ean 29 demanda aurkeztu ziren euskaraz, gutxi, baina urtetik urtera handitzen den kopurua da; 2011n baino 25 gehiago.
 - Elebitan emandako epai guztiak Donostiako 4. zenbakiko gizarte-arloko epaitegiak eman zituen; 2015ean, 70.
 - Itzulpen kopurua ere handitu egin da: 2011n 720 egin ziren, eta 1.020 iaz.
 - 2015ean, 261 kontsulta-terminologiko jaso zituzten ZWord aplikazioak edo Eusko Jaurlaritzako tresna-barra elektronikoak. Hau da, 2011n baino 211 gehiago.
- ✓ **Ahozko erabilera:** Herritarrek gero eta gehiago erabiltzen dute euskara Justizia Administrazioarekiko harremanean; horren adibide, deklarazioen, agerraldien eta interpretazio-saioen hazkundea.
- 2015ean 120 deklarazio egin ziren euskaraz; 2011n, 87.
 - Agerraldien kasuan, gorakada handiagoa da; 2011n 87 ziren, eta 2015ean 296.
 - Interpretazio-saioak ere ugartu egin dira 261tik 550era igo direlako 2011tik 2015era bitartean.
- ✓ **Informazio-aplikazioak:** 2011 eta 2015 bitartean bikoiztu egin da Jaurlaritzaren Justizia Administrazioaren webguneak jasotako bisiten kopurua, euskararen kasuan. Euskarazko bertsioak jasotako bisitak guneak oro har jasotakoak % 2,13 da.
- ✓ **Erregistro Zibilak:** 2015ean, jaiotzagatiko inskripzioen % 15 euskaraz egin ziren; 2011n % 10etik behera ziren.

AUZIA EUSKARAZ

Eusko Jaurlaritzak justiziaren arloan hizkuntza-normalizazioa sustatzeko 2013ko abenduan martxan jarritako Auzia Euskaraz proiektuaren ekarpen handia nabarmendu du txostenak. Zehazki, proiektuari esker, prozedura judizialak erabat euskaraz izapidetzea lortzeko asmoa dago, abokatuak demanda judizial bat jartzen duenetik dagokion ebazpena egiten den arte.

**2015eko BALANTZEAREN TAULAK, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO HIZKUNTZA
NORMALIZAZIORAKO PLANA**

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN BAT DUTEN JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK

	EUSKADI	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
1. HE	131 % 5,71	24 % 6,66	59 % 4,46	48 % 7,82
2. HE	476 % 20,73	72 % 20,00	286 % 21,63	118 % 19,22
3. HE	493 % 21,47	63 % 17,50	285 % 21,56	145 % 23,62
4. HE	50 % 2,18	1 % 0,28	18 % 1,36	31 % 5,05
Eskakizunik gabe	1146 % 49,91	200 % 55,55	674 % 50,98	272 % 44,30
Langileak, guztira	2296	360	1322	614

LANPOSTUAREN ARABERAKO HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA DUTEN JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK

URTEA	EUSKADI	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2015	816 % 35,54	120 % 33,33	533 % 40,32	263 % 42,83
2013	615 % 26,62	69 % 20,91	360 % 27,69	186 % 27,35
2011	621 % 26,25	85 % 21,35	338 % 26,38	198 % 28,86

ESKATUTAKO PROFILAREN %-a, ETA EGIAZTATUENA, LANBIDE KIDEGOAREN ARABERA

	EUSKADI	ESK. PRO.
Laguntzaileak	435	196 % 45,06
Izapidetzaileak	1057	441 % 41,72
Kudeatzaileak	744	273 % 36,69
Auzitegiko medikuak	60	6 % 10,00
Guztira	2296	816 % 35,54

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNEN BAT DUTEN EUSKO JAURLARITZAZ KANPOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK

	GUZTIRA	1. HE	2. HE	3. HE	4. HE
Epaileak eta magistratuak	243	12 (% 4,9)	10 (% 4,1)	16 (% 6,6)	1 (% 0,4)
Fiskalak	100	5 (% 5,0)	1 (% 1,0)	2 (% 2,0)	0 (% 0,0)
Justizia Administrazioako letratuak	203	13 (% 6,4)	19 (% 9,4)	18 (% 8,9)	2 (% 1,0)

ELEBITAN IDATZITAKO AGIRIAK

URTEA	EUSKADI	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2015	% 65,39	% 58,00	% 65,94	% 68,07
2013	% 62,56	% 57,16	% 62,51	% 65,32
2011	% 35,00	% 46,00	% 25,00	% 50,00

DOKUMENTU ELEBIDUNEN EREDUAK

URTEA	EUSKADI
2015	6.644 % 34,00
2013	4.142 % 28,31
2011	1.226 % 8,00

EUSKARAZ AURKEZTUTAKO DEMANDAK

URTEA	EUSKADI	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2015	29	1	7	21
2013	11	2	2	7
2011	4	0	1	3

EUSKARAZ EMANDAKO EPAIAK

URTEA	EUSKADI
2015	70
2013	48
2011	104

ITZULPENAK

URTEA	EUSKADI	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2015	1.020	41	291	688
2013	937	32	359	546
2011	720	20	237	427

KONTSULTA TERMINOLOGIKOAK

URTEA	EUSKADI
2015	261
2013	71
2011	50

DEKLARAZIOAK EUSKARAZ

URTEA	EUSKADI	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2015	120	1	29	90
2013	54	0	22	32
2011	87	2	29	56

AGERRALDIAK EUSKARAZ

URTEA	EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2015	296	25	115	156
2013	50	3	13	34
2011	87	7	32	48

INTERPRETAZIO SAIOAK

URTEA	EUSKADI	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2015	550	30	188	332
2013	241	5	68	168
2011	261	9	73	179

WEB GUNeko BISITALDIAK, EUSKARAZ

URTEA	EUSKADI
2015	14.765
2013	14.943
2011	7.519

ERREGISTRO ZIBILEAN INSKRIBATUTAKO JAIOTZAK

URTEA	EAE	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
2015	% 14,88	% 2,55	% 7,92	% 30,64
2013	% 16,86	% 2,28	% 10,65	% 33,36
2011	% 9,98	% 1,05	% 7,95	% 19,99